



**2010EKO URRIAREN 13KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamarreko urriaren hamahiruan, arratsaldeko seietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo eta Xanet Barreras Jauregi.

Iñaki Saldaña Herrero zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2010eko irailaren 15ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2010eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 10 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BERREHUN ETA HAMAIIKA MILA ETA HIRUROGEITA HAMABI EURO eta LAUROGEITA HAMAIIKAZPI ZENTIMO (211.072,97 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

**III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-**

Gizarte Zerbitzuetako Batzardeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzardeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

**Etxeko Laguntza Zerbitzua.-**

09-11-005 zbk.dun esped.: zerbitzua handitzea, astean 5 egun eta eguneko 2 ordutik astean 5 egun eta eguneko 3 ordura. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %8 izango da.

- 10-11-007 zbk.dun esped.: astean 6 egun eta eguneko 2 orduko zerbitzua ematea. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %8 izango da.

**Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-**

- 09-01-018 zbk.dun esped.: 1.062 €ko dirulaguntza ematea oinarrizko instalazio gastuetarako. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.



Presoen familiartekoentzat garraiorako laguntza.-

- 10-13-001 zbk.dun esped.: preso dagoen bere familiartekoaren bisita bidaietarako hilean 56,03 €ko dirulaguntza ematea.

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

2010eko aurrekontuan Kantaka taldearentzat aurrirakusten den 5.000 €ko dirulaguntzatik, orain erdia, hau da, 2.500 € aurreratzea proposatzen da Kultura batzordetik.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, proposamena onartzea erabakitzen du.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

